



**Helduen Literatura**

*Bizkartzainaren lehentasunak*  
Iñaki Irasizabal

Pamiela, 2014

## Hitzen ondoeza

GARAI ZEHATZ bateko gertakarien inguruko berrietan oinarrituz osatutako fikzio gisa definitu du idazleak bere azken liburua: *Bizkartzainaren lehentasunak*. 50 urtez Euskal gizartea astindu duen konfliktu armatua gaitzat harturik, ETAk 2011ko urrian su etena deklaratu aurreko hilabetetan txertatu du, eleberri beltzaren itxura ematen dion trama batean.

Bake prozesurako lehenbiziko aurrerapausuak emanak direla, poliziak talde armatuan infiltratu bat sartu zuela zurrumurrua zabaldu da. Satorraren erailketa posibleak arriskuan jartzen du bakerako bide oro eta, beraz, Martín Goena, iraganean militante armatua izandakoa, kontratatuko dute haren bizkartzain gisa. Gauzak konplikatzen hasiko dira, Aratzi, Bilduko zinegotzia eta Martinen alaba, erailketetan parte hartzea leporatu nahi diotenean.

Armak uzteko erabaki ofiziala hartu baino urte batzuk lehenago, taldeak ez zituen garai loratuak bizi izan eta, agian horregatik, barne banaketaz zein koordinazio ezaz mintzatu zen. Interrogazio ugari ireki ziren. Nola azaldu hainbat atentaturen saiakera zapuztuak? Taldekide zein kolaboratzaileen desagerpena? Edo talde barruko zenbaitak, muturreko egoerak direla eta, egin behar izandako borondatezko entregak? Gertakari berezi bezain arraroen aurrean ekin zitzaion polizia infiltratu baten (edo gehiagoren) posibilitatean pentsatzeari. Nori ez zaio inoiz hura burutik pasa?

Premisa posible horretatik abiatuz eraiki du Iñaki Irasizabalek bere fikzioa. Errealitatearen isla izan nahi ez duen arren, konfliktu politiko bat tranpolin hartuta, zenbait kontzepturen edukian urperatu gaitezen proposatzen duela ematen du. Bakea, justizia, traizioa dira liburu honen konstantea, pertsonaia guztien ahotan topatzen ditugun hitz klabeak, eta baita tramaren bizkarrezurra. Denek izango dute bakea helburu, pertsonaiek justizia eskatuko dute baina, azken finean, denak gara traidoreak besteen begietan. Zergatik baina?

Jabetu ez arren, egunero hamaika mila aldiz aipatzen diren esanahi higatuzko hitzak baino ez ditugu hauek, eta praktikan jartzen direnean ere, nahi ahala egiten eta desegiten dira dirua tartean bada. Balio unibertsaleko definizioa bazterturik gelditu da eta merkatu sistemaren saleroste beharrari erantzuten diote orain: bakea zein preziotan? Justizia norentzat eta zeren truke?

Printzipio ideologiko batzuen menpe elkarri tiroka ari garen bitartean, gure bizitzari prezioa jarri diotenak espektakulari barrez begira daude. ■

**Saioa Ruiz Gonzalez**



*Euskal literaturaren ikusezintasuna.*  
Hainbaten artean

*Hegats*, 51. zenbakia.  
Euskal Idazleen Elkarte, 2013

## Euskal literaturaren ikusezintasunaz

ERREALITATE horren zergatiak aletzen saiatu dira Ander Iturriotz, Inma Errea, Josu Jimenez Maia, Ixabel Etxeberria, Gotzon Barandiaran Arteaga eta Anjel Lertxundi—azken honek Iratxe Etxebeste mintzalagun duela—, *Hegats* aldizkariako 51. zenbakian.

Nork bere ertzetik heldu dio gaiari, zenbaitetik lurraldetasunaren ikusezintasunari, osotasunari erreparatuta nahiz Nafarroa edo Iparraldea esparutuz hartuta, kasura; hainbatek bere larruan bizi izan duenetik, gehienek hizkuntzaren gutxiespenak sortzen duen minetik, bazterkeriak duen oinarri politikotik, musikaren eta literaturaren arteko uztardurak eman lezakeenetik...

Ehun orrialde eskaseko liburuxka honek ez dakar konpendio bateraturik, baina bai ondo kontuan hartzeko ideia hausnartuak, zezenari adarretatik heltzeko.

Biziki interesgarriak Ander Iturriotzek planteatzen dituen galderak; (nazio, kultur edo literatur) marka kontzeptuaren inguruan azaleratu diren gogoetak edota Ixabel Etxeberriari darion baikortasuna. Gogoan hartzekoak, halaber, Inma Erreak generoaren optikatik egin duen ispilutzea. ■

**Garbine Ubeda Goikoetxea**

